

ARTEAN MURGILTZEN

- **Jakintza adarra:** Arteak eta Giza Zientziak
- **Campus:** Bizkaia
- **Ikastegi antolatzailea:** Arte Ederren Fakultatea
- **Gradua/k:** Arte
- **Garapen-lekua (helbidea):** Arte Ederren Fakultatea. Bizkaiko campusa. Sarriena auzoa z/g., Leioa (Bizkaia)

1. JARDUERAREN DESKRIBAPEN LABURRA

Praktika artera metodologikoki hurbiltzean datza. Oro har, pintura, marrazketa eta eskultura erabiliko dira sarrera horren ardatz gisa.

2. LANDUKO DIREN GAIK/EDUKIAK

- Ideiak sormenezko irudi originalen bidez adieraztea.
- Kolorea eta prozedura piktorikoak.
- Marrazkia eta prozedura grafikoak.
- Eskultura eta prozedura eskultorikoak.
- Metafora bisuala.

3. EGINGO DIREN EKINTZAK

A. Abstrakzio kromatiko egitea paper handi batean pintura akrilikoekin. Horretarako hainbat baliabide materiko, piktoriko eta grafiko erabiliko dira, honako urrats hauei jarraituz:

1. Bi edo hiru koloretako degradazioa egitea, bertikalean, horizontalean edo diagonalean.
2. Inprimaketa edo estanpazio bat egitea.
3. Zipriltinketa edo *dripping* bat egitea.
4. Silueta moduko gainjartze grafiko egitea.
5. Txantilo edo *stencil* bat erabiltzea.
6. Egindakoaren zati bat kentzea edo ezabatzea.

B. Azetato batean ganean kolorezko tinta eta pintura akrilikoarekin margotu, agertoki bat irudikatuz. Errotuladore batekin bigarren azetato baten ganean marraztu/margotu, aurretik lortutako irudia oinarritzat hartuz. Bi irudiak konbinatu.

C. Irudizko animalia baten marrazki fantastiko bat egitea, asmakizun-galdetegi batetik abiatuta. Marrazki hori egiteko, errotuladoreak eta teknika grafiko desberdinak erabiliko dira akuarelarako paper baten gainean.

D. Aurreko proposamenetik abiatuta, hiru dimentsioko irudia burutuko da.

* Jarduera horietako bakoitzari eskainitako denbora aldatu ahal izango da ikasleen parte-hartzearen eta inplikazioaren arabera.

4. EGUTEGIA ETA PLAZAK

Data	Hizkuntza	Txanda	Ordutegia	Plazak
2024-06-04	Gastelaniaz	Goizez	10:00 – 12:00	20
2024-06-05	Euskara	Goizez	10:00 -12:00	20